ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2016ko azaroaren 21a, astelehena • 130 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## KANTAURIKO URKIDETZA

**Behin betiko onarpena ematea zerbitzu hauen tasen 2016ko hirugarren hiruhilekoko erroldei: ur hornidura eta estolderia zerbitzua**

Julen Ibarrola Gobantes Kantauriko Urkidetza ur partzuergoko lehendakariak

Jakinarazten du:

Lehendakariaren dekretuaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu delarik, 2016ko urriaren 17ko ALHAOn (115. zenbakia) argitaraturik ur horniduraren eta estolderia zerbitzuaren tasaren 2016ko hirugarren hiruhilekoko zerga errolden behin-behineko onarpenaren iragarkia, eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da eta argitaratu egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, zergen orokorrak, 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

2016ko azaroaren 10etik urtarrilaren 10era, egun baliodunetan (biak barne), ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, ur horniduraren eta estolderia zerbitzuaren 2016ko hirugarren hiruhilekoko tasak.

Eragindako zergadunek Caixabankek Amurrion dituen bulegoetan (Elexondo kalea, 21) ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:00etara, epe horren barruan.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekargua aplikatuko zaio, bat etorriz indarrean dagoen Zerga bilketarako Araudi orokorrean ezarritako xedapenekin; errekargu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Izoria, 2016ko azaroaren 8a

*Lehendakaria*
*JULEN IBARROLA GOBANTES*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.11.22 00:00:13 Z